



Fer da UDAL AURREKONTUA

LEIOAKO
UDALA

UDAL BATEN
FUNTZIONAMENDUARI
LOTUTA DAGOEN FUNTSEZKO
ALDERDIETAKO BAT DA HAREN
AURREKONTUA, BAINA NONDIK DATOR
DIRUA ETA ZERTAN
GASTATZEN DA?

*Egin
dezagun
Leioa*



ZER DA UDAL
AURREKONTUA?

Gaur egun, Udalek beste urrats bat egin dugu aurrera, herritar guztiek hona iristeko, galderak egiteko eta ezagutzeko moduko tokia bilakatu ahal izateko.

Horretarako bide egokia da herritarrei aukera ematea udal-aurrekontuak bezalako auzi garrantzitsu batean parte har dezaten. Aurrekontuak funtsezko tresna dira udal-finantzak eta -ekonomia urte betez kudeatzeko.

NOLA ONARTZEN DA UDAL AURREKONTUA?



NOLA PRESTATZEN DEN

Aurrekontuak prestatzeko, **zuhurtzia eta sarrerak eta gastuak egiaz parekatzeko printzipioak bete behar dira.**



NOLA IZAPIDETZEN DEN


Udal-gobernuak **aurrekontuaren zirriborroa** prestatu, eta alderdi politikoei ematen die, zuzenketa egin ditzaten. Udalaren Osoko Bilkurak eztabaida egiten du hartaz, eta hasierako onespina ematen dio.

Horren ondoren, **jendaurrean jartzen da 15 egunetan.** Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betiko onetsita dagoela jotzen da. Erreklamazioak aurkeztuz gero, Udalaren Osoko Bilkurak ebazpena eman beharko du haietaz, hilabeteko epean.


NONDIK ATERATZEN DIRA LEIOAKO UDALAK AURREKONTUA PRESTATZEKO DITUEN SARRERAK?



Sarrerak toki hauetatik lortzen dira:



* 2017KO
AURREKONTUKO
DATUAK



1 **BESTE ADMINISTRAZIO BATZUEK BILDUTAKO SARRERETAN UDALAK DUEN PARTAIDETZA: 20.482.034,99 € ***

Leioako Udalak beste administrazio batzuek bildutako sarrera itunduetan (Ekonomia Ituna) eta zerga itundu gabeetan parte hartzen du, bere eskumenen esparruan jarduteko behar duen finantziazioa lortzeko.

Adibidez, Bizkaiko Foru Aldundia arduratzen da zergarik ezagunenetako bi kudeatzeaz eta biltzeaz: Errentaren gaineko Zerga eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

UDALKUTXA: Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko sarrerak Udalkutxa izeneko funtsaren bidez banatzen dira. Banaketa egiteko, hainbat irizpide hartzen dira aintzat, hala nola, lurraldeko udaletako biztanleak, eskola-unitateak, langabezia... Aurten, **aurrekontu osoaren %48,88 izan da** (16.626.978 €). Aurreikusitako bilketaren gutxi gorabeherako kalkulua egiten da, eta hilero ematen zaie Udalei. Gero, urte amaieran, benetako bilketako datuak ikusita, gorantz (diru gehiago banatuta) edo beherantz (hurrengo urtean eman beharreko kopurutik kenduta) doitzen da.

DIRU-LAGUNTZAK: Beste administrazio batzuen mendeko sarreretan parte hartzeko dagoen beste modu bat diru-laguntzak dira. Hala, Leioak Europaren, Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Aldundiaren... finantziazioa jasotzen du, herritarrentzako zerbitzuak, kultura-ekitaldiak edo inbertsioko proiektuak egiteko:

- Enplegua sortzea.
- Mendekotasunerako laguntzak.
- ...

2 **TOKIKO ZERGAK: 8.263.796 € ***

Udalak biltzen dituen zergen artean, hauek nabarmentzen dira: OHZ (lehenko kontribuzioa), Eraikuntzen gaineko Zerga eta Ekonomia Jardueren gaineko Zerga. 2017an, sarrera guztien %22,97 izan da.

SARRERAK *

34.013.578,22 €

* LIBURUXKA HONETAN
JASOTAKO KOPURU
GUZTIAK 2017KO
AURREKONTUOK DIRA

3 TASAK: 4.114.842,73 € *

Sarrera horiek bi multzotan bana ditzakegu:

- A) Espazio publikoaren aprobetxamendu berezia egiteagatik ordaindu beharreko TASAK. Adibidez:
- Tabernetan terrazak jartzea.
 - Aparkalekuak erreserbatzea, pasabideak.
 - Bide publikoa edukiontzi, hesi edo obra baterako aldamiokin okupatzea.
- B) Udalaren oinarriko zerbitzuengatik ordaintzen ditugun TASAK. Adibidez:
- Zabor-bilketa.
 - Udaleko kirol-instalazioak.
 - Obra-lizentziak, jarduera-lizentziak, Eraikinen Ikuskapen Teknikorako (EIT) lizentziak... izapidetzea.
- C) Programetan edo jardueretan parte hartzeagatik edota Udalak eskaintzen dituen bestelako zerbitzuak erabiltzeagatik ordaintzen ditugun TASAK. Adibidez:
- Kultur Leioako zinema, antzerkia, tailerrak...
 - Udal-euskaltegiko klaseak.
 - Musika Eskola eta Kontserbatorioa.
 - ...

4 INBERTSIOAK: 827.879,60 € *

Lurzoria edo bestelako jabetzak saldaz lortutako sarrerak eta legez Udalak kobratu behar dituen aprobetxamenduak.

5 ONDARE-SARRERAK: 325.024,90 € *

Partikular batek dituenaren moduko sarrerak dira. Jabetza-erentek, bankuko gordailuek edo Udalak dituen kanonen ordainketek sortzen dituzte.


Fer da UDAL AURREKONTUA

LEIOAKO
UDALA

LEIOAREN ZORPETZEA ZERO DA



Leioak aurrekontua prestatzen duenean, **zorpetzea 0** da. Era horretan, kontu gardenak eta garantistak lortzen ditugu, gure etorkizuna ez hipotekatu eta hazkunde iraunkorra bermatu ahal izateko.



* 2017KO AURREKONTUKO DATUAK

Soinu Atadia: Musika Eskola eta Kontserbatorioa
Euskararen Erakundea: Udal Euskaltegia eta Euskara Zerbitzua


- **Udala:** 34.013.578,22 €*
- **Erakunde Autonomoak:**
 - Soinu Atadia: 2.207.374,00 €*
 - Euskararen Erakundea: 1.085.758,77 €*

GASTUEK INOIZ EZ DITUZTE SARRERAK GAINDITU BEHAR

ZERTAN ERABILTZEN DA DIRUA?



Leioako Udalak Udaleko zerbitzu publikoei eta azpiegiturei eusteko erabiltzen du bildutako dirua. Hain zuzen, gure gastuak bide hauetan daude egituratuta:



* 2017KO
AURREKONTUKO
DATUAK



1 HERRITARRENTZAKO ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK: 16.585.480,15 € *

Aurrekontuetan jasotako gastuaren ia erdia herritarrei zerbitzuak ematera bideratuta dago. Gastu horiek aztertuz gero, hiru kategoria handitan bil edota multzoka ditzakegula ikusiko dugu:

A) Udalak leioaztarrei eskaintzen dizkien ZERBITZUAK.

Adibidez:

- Bideak garbitzeko zerbitzuak.
- Segurtasuna.
- Gaikako zabor-bilketa zerbitzua.
- Argiteria publikoa.
- Gure parkeak eta lorategiak mantentzea eta kontserbatzea.
- Enpleguko orientazio-zerbitzua.
- Herritarrei arreta eskaintzeko zerbitzuak.
- Modernizazioa eta berrikuntza.
- Gizarte-zerbitzuak: informazioa, balorazioa, diagnostikoa eta orientazioa.
- Hezkuntza, kultura, kirol... zerbitzuak.
- ...

B) PROGRAMAK ETA JARDUERAK:

- Jaiak eta azokak.
- Kultur Leioaren programazioa.
- Tokiko saltokiak sustatzea.
- Gizarteratzea sustatzen duten jarduerak.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna.
- Kirol-ikuskizunak sustatzea.
- Gobernu Irekia, Parte-hartzea.
- Herrigune eta Tokiko Agenda 21
- Hezkuntzaren eta balioen arloko programak.
- Drogamenpekotasunaren prebentzioa.
- Bideak garbitzeko zerbitzua.
- Gaikako zabor-bilketa zerbitzua.

C) UDAL EKIPAMENDUAK:

Halaber, Leioak hainbat eratako 43 ekipamendu ditu eskura (udaletxea, kiroldegia, kultura-zentroak...), eta haien mantentze-gastuak ohiko transferentzien diru-sailak hartzen ditu bere gain (argia, ura, garbiketa, gasa, ekipamendua, komunikazioak, aseguruak eta abarri dagozkion gastuak).

GASTUAK *

34.013.578,22 €

2 LANGILERIAKO GASTUAK: 10.233.579,34 € *

- A) Gastuaren %30 inguru udal-sail guztien bidez gure Udalerriaren eguneroko jarduna egiten duten **LANGILEEK** eragindakoa da (200 herri-langile baino gehiago: poliziak, lantaldeak, gizarte-langileak, teknikariak, administrariak...).
- B) Partida honetan, Udalaren **GOBERNUA** dago sartuta, eta aurrekontu osoaren %1.8 inguru da (643.412 €):
- Alkatetza: 136.963 € (%0,4).
 - Alkateordeak: 325.718 € (%0,9).
 - Goi karguen dietak eta lekualdaketak: 7.000 € (%0,02).
 - Liberatuta ez dauden zinegotziak: 90.000 € (%0,3).
 - Alderdi politikoak: 83.730 € (%0,2).

3 DIRU-LAGUNTZAK: 3.655.500,89 € *

Udalak aurrekontu globalaren %10 bideratzen du hainbat talde diruz laguntzeko, dagozkien zereginak bete ahal izango dituztela bermatzeko:

- Kultura-taldeentzat.
- Kirol-erakundeentzat.
- Garapenerako lankidetzako proiektuak egiteko.
- Auzoen komunitateetan irisgarritasuna hobetzeko obrak egiteko (igogailuak, arrapalak atarrietan...).

4 INBERTSIOAK: 3.449.017,84 € *

Leioako Udalean gastu esanguratsua egiten da Udalerriaren eta gure herriko bizilagunen bizitza hobetzera bideratutako inbertsioetan. Inbertsioen artean, hauek nabarmenduko ditugu:

- Txorierriko igogailua.
- Sabino Arana birgaitzea.
- Haurrentzako ekipamenduak.
- Auzoak birgaitzea.
- ...



UDALAREN AURREKONTUA *

34.013.578,22 €

* 2017KO AURREKONTUKO DATUAK

ZER GASTATZEN DU BAKOITZAK?



Gastua, arloen arabera banatuta:

HIRIGINTZA: 8.686.509,80 € (%25,55)

Udal-eraikinak, bide-seinaleak eta pintura, herri-lan eta herri-bideak, estolderia, ura, zaborrak eta hondakinak, garbitasuna, hilerria, argizatze publikoa, lorezaintza, garraio publikoa...

KIROLAK: 3.923.359,32 € (%11,54)

Kirola sustatzea, kiroldegia, Uda programa...

HEZKUNTZA ETA HERRITARREN PARTE-HARTZEAK: 3.495.756,61 € (%10,28)

Ikastetxeak, hezkuntzako ekintzak, balioetan oinarritutako hezkuntza, euskara.

OSASUNA ETA GIZARTE-ONGIZATEA: 3.457.317,71 € (%10,16)

Gizarte-laguntza, adineko pertsonak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, haurrak, berdintasuna, etxez etxeko laguntzak, harrerako etxebizitzak, etxeko indarkeria, droga-mendekotasunen prebentzioa, garapenerako lankidetzak, animalien babesa...

INBERTSIOAK: 3.377.488,84 € (%9,93)

Auzo eta bide publikoetan eta herria birgaitzen egindako inbertsioak, kirol-instalazioetan, eraikinetan eta, besteak beste, makineria eta ibilgailuak eskuratzean egindakoak.

KULTURA: 3.348.324,05 € (%9,84)

Kultura sustatzea, kulturaguneak, liburutegia, Ondiztorre, gazteentzako jarduerak, Eguberrietako jaiak, eskulangintzako tailerrak, aterpea, Leioa Gaztegunea, Zuhatsu Txokoa, Gaztelubide Txokoa...

SEGURTASUNA: 2.648.763,84 € (%7,79)

Udaltzaingoa eta zaintzako zerbitzuak.

ZERBITZU OROKORRAK: 1.576.241,96 € (%4,63)

Zerbitzu orokorrak, giza baliabideak, informatika-zerbitzuak, udal-artxiboa, administrazio-kontratazioa, komunikazioak...

ARLO EKONOMIKOA: 1.106.916,62 € (%3,25)

Arlo ekonomikoan Udalarri laguntzeko ardura duten langileak eta baliabideak, diruzaintza...

ARLO JURIDIKOA: 904.486,13 € (%2,66)

Udalarri zuzenbide arloko laguntza emateko ardura duten langileak eta baliabideak, Bake Epaitegia, Herritarrentzako Arreta, HAZ bulegoak.

SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA: 845.000,36 € (%2,48)

Behargintza, Ibarlan, enpresen mintegia, tokiko enplegua eta garapena, enplegua sustatzea...

GOBERNU ORGANOAK: 643.412, 98 € (%1,89)

Barruan hartzen ditu udal-ordezkaritza duten talde politikoei dagokien esleipen ekonomikoa, ordainketak, aldi baterako langileen kontratazioa, protokoloko arretak, Artatza jauregiko ezkontzak...

AURREKONTU IREKIAK

LEIOAKO UDALAK

UDAL AURREKONTUAK PRESTATZEAN PROZESU IREKIA EGITEKO URRATSAK



2018KO AURREKONTUA PRESTATZEKO, LEIOAKO UDALAK INBERTSIOEN %25 BIDERATUKO DU HERRITARREN PARTE-HARTZEA IZATEKO.




DIRUA ZERTAN ERABILI ERABAKI AHAL IZANGO DUZU

1 BA AL DUZU PROPOSAMENIK?



2 ZURE PROPOSAMENAK BIDALTZEKO MODUAK:



3 UDALEKO TEKNIKARIEK PROPOSAMENAK AZTERTUKO DITUZTE, ALDERDI HAUEK AINTZAT HARTUTA:

- TEKNIKOKI BIDERAGARRIAK DIREN
- AURREKONTUAN SARTU AHAL DIREN
- INTERES PUBLIKOKOAK DIREN



4 BEHIN BETIKO PROPOSAMENEN ZERRENDA HERRITARREI AURKEZTUKO ZAIE, BOTOA EMATEKO



5 EMAITZAK HERRITARREI ITZULIKO ZAIZKIE

AURREKONTU IREKIAK



2018ko aurrekontua prestatzeko, Leioako Udalak inbertsioen **%25 bideratuko du herritarren parte-hartzearekin**, guztien artean, diru hori zertara zuzendu eta nola banatu erabakitzeko.

Zertan erabiliko zenuke diru hori? Nola gastatuko zenuke? Pentsa ezazu guztion onerako izango den zerbait izan beharko duela, edo, behintzat, interes orokorra aintzat hartuko duena, eta, gainera, teknikoki eta ekonomikoki bideragarria izango dena.

Hasi pentsatzen; izan ere, parte hartzeko epea laster jarriko da abian, eta ideia guztiak dira onargarriak. Leioako herritar guztiok dugu garrantzia.



2018KO EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTUAK OSATZEKO PROZESUAN LEIOAKO UDALAK HERRITARREN BEHARRAK ETA LEHENTASUNAK TXERTATUKO DITU. AURREKONTU IREKI HORIEK LASTER GURE KALEETAN IKUSGAI IZANGO DEN BONBILLA BERDE BATEKIN IDENTIFIKATUKO DIRA.

*Haz ezazu parte
Leioa hobetzeko*

*Egin
dezagun
Leioa*

